

Biktimaren gainbehera: sorkuntza iruzurgileaz libratu da eta erresistentziari hurbildu zaio berriro¹

Praktika artistikoak zer estrategiez baliatzen dira gaur egun, beren funtzio kritikoa betetzeko? Nola elkarlotzen dituzte sorkuntzaren eta erresistentziaren ahalmenak, atxikimendu estetiko eta politikoa?

Testu hau, aurrez, Zehar 51 zenbakian argitaratu zen, 2003an.

* **Suely Rolnik** psikoanalista, saiogilea eta Sao Pauloko Unibertsitate Katolikoko irakaslea da. Besteak beste, *Micropolítica: Cartografias do Desejo* (1986) argitaratu zuen, **Felix Guattari**ekin batera.

Subjektibotasun paradoxikoa

Subjektibotasuna laborategi bizia da, non unibertso batzuk sortu eta beste batzuk desegiten diren. Era askotakoak dira subjektibotasuna atontzeko politikak eta, politika horien eraginez, munduko bestetasunarekin harremanetan jartzeko moduak. Mundua atzemateko eta harekin harremanetan jartzeko bi moduren askotariko konbinazio aldakorrek daude — mundua ulertuta materia gisa, hau da, forma baten diseinu gisa edo indar eremu gisa— eta konbinazio horiek subjektibotasunaren hainbat ahalmenen eragimenez sortzen dira.

Mundua materia-forma modura ezagutzeko, beharrezkoa da zentzumenezko organoen bidez hautematea. Mundua materia-indar modura ezagutzeko, berriz, sentipena da beharrezkoa, gorputzaren eta gorputzari eragiten dioten munduko indarren arteko topaketatik sortutako sentipena. Indar horiek gorputzari zertan eragin diezaioketen jakiteko, erantzun-iturria ez da gorputzaren izaera organikoa, sentikorra edo erogenoa, baizik eta uhin nerbiosoek zeharkatutako haragia, hau da, «gorputz dardarakoia». Bestea antzematean, haren izate formula subjektibotasunera eramaten dugu, haren errepresentazioa hartzen dugu; sentitzean, berriz, haren presentzia bizia hartzen dugu. Mundua atzemateko bi modu horien artean ebatzi ezinezko paradoxa bat gertatzen da; batetik, sentipen-bloke berriak datozkigu, zeintzuek subjektibotasunari sakatzen dioten, subjektibotasunak unibertso berrien eragina pairatu ahala; eta, bestetik, subjektibotasunak bere burua ezagutzeko eta egunerokotasunean ez galtzeko subjektibotasunak dituen bitartekoak dauzkagu. Albora ezinezko desberdintasun horrek kolokan jartzen ditu gaur egungo moldeak, zeren molde horiek oztupo bihurtzen baitira sentipen-bloke berriak ernarazi dituen munduko bestetasunarekin harremanetan jartzeko. Testuinguru horretan, sentipenek ezin dute prozesua gidatu, bizidarrak husten dira eta zentzua galtzen

dute. Horrelakoetan, subjektibotasunean krisia gailentzen da eta krisi horrek sakatu egiten du, egonezina sortuz. Presio horri erantzuteko, gizakiak bizitza mobilizatzen du, bizitza erresistitzeko eta sortzeko ahalmena denez. Hau da, ezinegonak behartzen gaitu existentziari beste egituraketa bat ematera, norberari buruz, munduari buruz eta norberaren eta munduaren arteko harremanei buruz beste irudikapen bat hartzera. Orobat, ingurumari berriak erantsi eta ingurumari horiek izate bihurtzera.

Bi indarrok beren eginahalean elkartzen direlako ahal du bizitzak jarraitasuna izan eta hedatu. Hortik ateratzen diren era askotako eraldaketa molekularrak metatu egiten dira eta, azkenean, gizarte-modu berriak ernarazten dituzte. Azken buruan, obra irekia eta prozesuaren baitan osatua sortzen dute eta, horregatik bada, obra horrek ahalegin kolektiboaren emaitza izan behar du. Subjektibotasunak berezkoa duen paradoxa eta paradoxa horrek eragiten duen krisia dira, beraz, etengabe bestea bilakatzen ari den banakotasunera iristeko prozesuaren oinarriak, hau da, prozesuaren abiatzaileak dira. Arrazoi horregatik, bada, oreka ezegonkorreko egituraketa iragankorra da subjektibotasuna atontzeko edozein jokamolde.

Ezagutzaren bi modu horiek erabiltzen diren edo ez diren erabiltzen, eta munduarekiko hurbilpenean ezagutza horietako bakoitzari zer leku ematen zaion, halakoak izango dira subjektibotasuna atontzeko moldeak, zeintzuek egituratzen dituzten, inoiz ondorio neutrokoak ez diren bestetasunarekiko harremanen politikak. Politika horiek, izan ere, edo indartzen dute edo, bestela, indargabetzen dute bizitzaren prozesu-izaera, desberdintzeko ahalmen bezala prozesua hedatu ahal izatea: desberdintzeko ahalmen horren osagaiak dira, aldi eta neurri berean, asmatzeko indarra, zeinak munduak desosatzen eta osatzen dituen, eta erresistitzeko indarra, zeinak aldaketa bermatzen duen. Bestela esanda: bestearekiko harremanen politika era batekoa edo bestekoa izan, bizitzaren ahalmena indartuta edo indargabetuta aterako da. Testuinguru

horretan nola jar dezakegu ezbaian gaur egungo «munduko kapitalismo integratuan»² gailentzen den subjektibotasunaren politika?

Asmamen bahitua

Zenbait egile garaikidek, bereziki Toni Negriren ingurukoek, baieztatzen dute ezen 1970eko edo 80ko hamarralditik aurrera kapitalismoak asmamen-indarra bilakatu duela bere balioen iturri nagusi eta ekonomiaren eragile. Nola uler daiteke fenomeno hori, horren oinarri den subjektibotasuna atontzeko politikaren ikuspuntutik?

Bi alor nabarmentzen eta kontrajartzen dira: batetik, ospea galtzeko joera du mundua materia-indar gisa ezagutzeak, eta, horren ondorioz, ezagutza mota hori desaktibatzen ari da; beste alde batetik, sentipen-bloke birtualen eta gaur egungo bizitza-moldeen arteko paradoxa bortizki areagotu da, eta, hori dela eta, baita disonantzia horrek sorturiko sorkuntza-indarraren tentsioa eta mobilizazioa ere.

Disonantzia hori arrazoi ugariengatik areagotzen da. Nabarmenenetako bi baino ez aipatzearren esango dugu ezen, lehenik eta behin, kapitalismoaren eskutik datorren bizimodu hiritar eta globalizatuak berekin dakarrela planetako edozein tokitan subjektibotasunari eragiten dioten munduak gero eta gehiago ugaltzea eta gero eta abiadura eroagoan aldatzea, hots, era guztietako indar zurrunbilo batek subjektibotasunari etengabe eragitea; eta, bigarrenik, merkatu-esparru berriak etengabe sortu behar izateak (logika kapitalistaren berezko beharra da) berekin dakarrela, batetik, esparru berri horiei oinarri existentziala emango dieten bizimodu berriak sortu behar izatea, eta bestetik, beste bizimodu batzuk munduaren eszenatokitik bota behar izatea, desaktibatutako ekonomia-sektore osoekin batera. Beste batzuen artean, bi faktore horien elkarketak murriztu egiten du ohiko moldeen baliagarritasun epea, ohiko molde horiek zaharkiturik geratzen baitira, are geure egiteko astirik izan baino lehen.

Elkarketa horrek, beste aldetik, nork bere burua azkar baino lehen birformateatzera behartzen du, are aldaketak sortzen dituen sentipenez jabetzeko astia izan baino lehen. Tentsio egoera etengabe bizi gara, amorraren muga-mugan, eta horren ondorioz oso maiz egiten zaio dei asmamen indarrari.

Egoera larriagotuz, prozesu hori hedatzen da subjektibotasuna dagoelarik munduko bestetasunaren indarren aurrean itsu, gorputz dardarakoitik bananduta, eta, beraz, asmamen indarra mobilizatzen duten sentipen-bloke berrietara ezin iritsiz (gorputz-iparrorratz moduko bat da asmamen indarra, sentipenen eguneratze existentziala ahalbidetuko duten lurraldeen sorkuntza gidatzen duena). Asmamen-indar gordea askatzen da orduan, baina ezinezko gertatzen zaigu indar horretaz jabetzea, bizi-prozesuak eskatzen duenaren araberako mundu bereziak eraikitzeak. Sorkuntza «libreko» indar gorde hori da kapitalismo garaikideak deskubritu duena meategi berri gisa, ustiatu beharreko balio-iturri oparo gisa (gertaera hori antzematen eta zedarritzen jakin zuten Toni Negri eta haren laguntzaileek). Errentagarritasun ahalik eta handiena ateratzeko, kapitalismoak asmamen indarra sustatuko du, berezkoa duen logikaren ondorioz lehen ere sustatzen zuen bezala, baina orain kemen handiagoz eta inoiz baino maltzurkeria handiagoz: iruzurgileen gisara, asmamen indarra gainbalio-metaketaren mesedetan ustiatuko du eta, modu horretan, indar horren sortzaile den bizi-prozesuaz baliatuko da, bizi-prozesua bere mendean hartzeko eta bere burua erresistentzia-indarretik bereizteko. Alde batetik daukagu asmamen indar bat, bizkortua eta erresistentziarekiko harremanetatik askatua, eta, bestetik, tentsio bat, gorputz dardarakoiki materia-indar gisa atzematen ez duen munduaren bestetasunaren aurkako eraso baten testuinguruan areagotua: horiek dira subjektibotasuna atontzeko gaur egungo kapitalismoaren jokamoldea definitzen duten bi bektoreak.

Bizkorturik eta erresistentziarekiko loturirik aske, asmamen indarra kapitalaren gatibu

erortzen da eta, horren ondorioz, lurralde estandarrek sortzen dira kapital horren zerbitzura, asmatzen den esparru bakoitzarentzat egokiak diren subjektibotasunak egituratuz. Existentzia-lurralde homogeneousatuak dira, eta gainbalioa sortzea da horien printzipio antolatzailea, zeina prozesuari gainjartzen zaion eta prozesua bera berkodifikatzen duen. Benetako «prêt-à-porter identitateak» dira, erraz asimilatzeke modukoak, marketin operazio handien bidez sustatuak. Identitate horiek sortzea eta bideratzea hedabideen zeregina da, sinestarazi nahi baitigute ezen irudi lelo horiekin identifikatzea eta horiek kontsumitzea nahitaezkoa dela lurraldea berriro egituratzeko. Are gehiago, sinestarazi nahi digute ezen horixe dela «luxu-subjektibotasunaren» lurralde desiratuaren partaide izateko bidea. Eta hori ez da dena, zeren lurralde horretatik kanpo aukeretako batzuk baitira heriotza soziala, bazterketa, mesprezua, miseria eta are heriotza; azken buruan, «zabor subjektibotasunen» estolderian erortzeko arriskua –hots, izuaren lurraldea, zeinaren osagaiak diren gerrak, favelak, trafikoa, bahiketak, ospitaleko ilarak, ume gosetuak, aterperik gabekoak, lurrik gabekoak, paperik gabekoak, hitz batean, «gabetuak», egunetik egunera zabaltzen ari den lurraldea. Zabor-subjektibotasunaren patua baldin bada baliorik gabeko bizitzaren laidoaren pean etengabe bizi behar izatea, luxu-subjektibotasunarena da estolderia-lurraldean erortzeko mehatxupean etengabe bizi behar izatea. Erortzeko arriskuak, zeinak erremediorik gabekoa irudi lezakeen, harritu egiten du, asaldatu, eta aitorpenaren bila ari dena larritu.

Prozesua osatuz, tentsioa areagotzen da eta horrek giro ezin hobea sortzen du hedabideen setiorako, zeintzuek baketze promesak saltzen dituzten, lurralde-merkantzia estandarizatu horien kontsumoak ahalbidetzen duen berehalako berregituraketaren aitzakian. Eragiketa horren bitartez, tentsioa baretu daitekeela adierazten

diote gero eta indar handiagoz subjektibotasun ahulduari, eta ate joka ari diren munduko indarretatik aldentuta mantentzen dute.

Prozesu gero eta azkarrago horren zurrunbiloan, gero eta aukera gutxiago dago munduaren errealitatea materia-indar gisa ezagutzeko («ezagutzea» baita munduaren oihartzunetik sentibera izatea), disoziazio horri alde egiteko. Ezinezkoa da estimulu horien etenik gabeko setioari muzin egitea, existitzeari utzi gabe eta zabor-subjektibotasunaren amildegian erori gabe. Beldurra nagusitzen da.

Alabaina, Negriren inguruan lanean ari direnek adierazten digutenez, egungo kapitalismoak asmamen indarra bizkortu badu iruzurgilean gisara indar horri esker bizitzeko, bizitza sozialaren baitan indar hori mobilizatzeak, ordainetan, baldintza egokiak sortu ditu bizitzaren erresistentziarako ahalmena aldaketa-ahalbide gisara ager dadin, Mendebaldeko historia osoan seguruaren parekorik ez duen moduan.

Kapitalismoaren osagarria da anbiguotasun hori, haren puntu ahula. Eta ahuleziaren arrakala horretatik handitzen da bestelako printzipioek gidaturiko beste eszenatoki batera iristeko aukera.

Subjektibotasuna atontzeko zer estrategiek garbitzen dute gorputz dardarakoietako sarbide oztopatua, zer estrategiek berrelkartzen dituzte sormen-ahalmena eta erresistentzia-ahalmena, eta gorputz dardarakoia libratzen dute iruzurgilearen eraginetik? Galdera horri erantzuteko kokatu behar gara esparru batean, non politika eta artea elkarren artean nahasten diren, politikaren erresistentzia-indarrek eta artearen sormen-indarrek elkarri eragiten dioten eta bien arteko mugak bereizi ezinak bilakatzen diren. Proposatzen dut gure burua hibridazio zonalde horretan kokatzea, mota horretako estrategiak antzemateko artearekiko gertutasunarengatik kutsatutako politikaren aldean, batetik, politikarekiko gertutasunarengatik kutsatutako artearen aldean, beste aldetik.

Erresistentzia politikak: “Lula gertaera”

Lula Brasileko lehendakariarako hauteskundeetan garaile atera izana hartuko dut adibide gisa, erakutsi nahi baitut politikan zer estrategia prestatu diren sorkuntza indarra iruzurgilearen mendekotasunetik libratu eta erresistentzia indarrari berriro lotzeko. Hautatua izana baino harago, badirudi benetako gertakari bat jazo dela hauteskunde kanpainen zehar: Lularen figurak bertsio brasildarreko zabor-subjektibotasunaren amaiera irudikatzen du. Bostehun urteko politika kolonial, esklabista, diktatorial eta kapitalistaren emaitza da brasildarren subjektibotasuna, eta, bazterketa eta zatiketa erregimen ugari gainjarri diren oinordetza historikoaren ondorioz, herrialdea gizarte desberdintasunaren munduko sailkapenean lehen postuan jarri da. Alabaina, Lula gertaera dela-eta, gainbehera erori dira zabor-subjektibotasuna eta subjektibotasun horrek berezkoa duen biktima jarrera.

Biktimaren figura, krudeltasunarekin harremanetan bizi eta harreman hori ukatzen duen politikaren alorrekoa da. Krudeltasuna bizitzaren izaera tragikoa da, bizitzako ezinbesteko osagaia, mundua edo materia-forma gisa edo materia-indar gisa hautemateak dakarren desberdintasunak eragindakoa: desberdintasun horrek halako muga erdiesten duenean, krudeltasuna burutu egin behar da, dagoeneko zentzurik ez duen mundua desegin dadin; krudeltasuna da bizi-mugimenduaren berezko izaera, bizi-mugimenduaren «biolentzia positiboa» edo «aktiboa». Krudeltasunaren eragilea da sormen indarra, zeinak existitzeko modu berriak asmatzen dituen, eta, sormen ahalmenarekin batera, erresistentzia indarra, hau da, mundu berriak eraiki eta babestu nahi izatea. Hori guztia gabe, krudeltasunak ez du lekurik.

Egungo kapitalismoan gertatzen den bezala, subjektibotasuna aldenduta dagoenez, aurretiaz ikusi dugunaren arabera, materia-indar gisa ulertutako munduaren

errealitate bizitik, erresistentzia eta sormen indarrek elkar uxatzen dute. Subjektibotasunak ez daki aztertzen bizitzako krudeltasuna zergatik den beren harriduraren arrazoi, eta beldurrez eta babesgabetasunez begiratzen dio horregatik. Nola mundua materia-forma bezala bakarrik ezagutzen duen eta, beraz, irudiez eta interes gatazkez osatutako indarreko mapa bezala bakarrik, subjektibotasun horrek, argibideren bat bilatzeko eta bere burua lasaitzeko, beste batengan islatzen du bere beldurraren arrazoa eta, ondorioz, hari egozten dio krudeltasuna. Krudeltasunaren esperientziak akuilaturik, nahiz eta esperientzia hori interpretazioaren galbahetik igarotakoa izan, erresistentzia indarrak, kasu honetan, beharrezkoak gerta dakizkion bizitza-molde berriak finkatu eta babestu orde, bestearen aurka joko du. Matrize dialektikoak, orduan, indar hori harrapatzen du, kontrakoen arteko borroka balitz bezala: identitate-irudi bihurtutako subjektibotasunak dira, zeinen borroka soil-soilik botere mailakoa den. Alabaina, irabazlea edozein delarik ere, desio politikaren terminotan nagusitzen dena da kontserbadorismoa, zeinak indarrean dagoen egituraketaren alde egien duen: erresistentzia negatiboa da, ernaltzea eskatzen ari den desberdintasunaren haziari uko egiten dionez eta hazia landare bihurtzeko eta indartzeko beharrezkoak gertatzen den bizimodu jakin baten sorkuntzari galga jartzen dionez.

Erreakziozko erresistentzia politika horretan, jokoan diren era askotako indarrak isilarazi eta bi figura subjektibo bakarretan lerrotatzen dira: biktima eta/edo borrheroa, logika beraren aurrealdea eta atzealdea. Borrheroarentzat, bestea menperatzea da borrokaren xedea, nahi baitu beste hori objektutat hartu eta, hala, bere buruaren biziraupenerako eta bere hedapenerako erabili. Erresistentziaren ikuspegi negatiboaren gaineko politika maltzurra da hori, gaiztakeriaren ezaugarriak hartzen baititu, gaiztakeriarekin nahasteraino. Erreakzioko biolentzia da, inoiz agerikoa, fisikoa edo morala, inoiz «bake» itxurako inplizitua, zeina baita besteari agertzea begirune politikoki zuzena, errukiaz ongarritua, bestea

identitate-leku jakin batean mugarrizten duena. Borreroak «biolentzia negatiboa» berariaz onartzen duen bezala, biktimak, aitzitik, bestearen biolentziaren aurreko erreakzio bezala zuzitzen du berea, «etsaien» zelaikoa baita beste hori. Biolentzia, edo gauzatzen da inplizituki, negarti itxura emanez, erresuminduta jokatzu eta/edo norberarenganako erruki malenkoniatsua erakutsiz, edo gauzatzen da esplizituki, amorru itxura emanez, mendekua eta/edo paranoia erakutsiz. Erresumina eta mendekua, aurre egin nahi dioten horri ispilu gisa erantzuten dioten biktimaren erresistentzia politikak dira: politika horiek erruz elikatzen dituzten gaitzakeriaren logika eta biolentzia erreaktiboa.

Erresistentzia erreaktibo hori hegemonikoa da gure nortasun garaikidean: biolentziaren ikuspegi negatiboa gailentzeko joera dago beti, eta ikuspegi hori luze eta zabal hedatzen du munduko kapitalismo integratuak. Are gehiago, ikuspegi horretaz baliatzen da beldurra eta babesgabezia erretiko eta, horrela, tinkotasun existentzialak atontzen duen subjektibotasuna elikatzeko. Hedabideak dira zabalkunde horren tresna nagusia, eta, zalantzarik gabe, horien estrategiak gero eta sotilagoak, trebeagoak eta eraginkorragoak dira. Gaur egun, Irakekoak bezalako gerrek galbahe bakarria dute: CNN, zeinak ez duen kontuan hartzen erasotzailearen (AEB Irakeko kasuan) eta munduko kapitalismo integratuko indar aliatuen biolentzia negatiboa. Biolentzia horretaz ez da irudirik ematen, eta gerra, bestearen, hau da, «arabiarraren» balizko biolentzia negatiboaren aurkako mendeku bezala aurkezten da. Brasilgo kasuan, kapitalismoaren mikropolitika hori diktadura militararekin hasi zen eta gaur egun ere jarraitzen du.

Biktima eta borreroaren ereduak elikatzen dituena da sinestea luxu-subjektibotasunean eta zabor-subjektibotasunean, horien arteko harremanen baitako hierarkian eta, ondorioz, bien ereduontzako erreferentzia ideala den

luxu-subjektibotasunaren gailentasunean. Biktimarengan, luxu-subjektibotasunak mirespena, identifikazioa eta bekaizkeria pizten ditu, psikoanalisiak «erasotzailearekiko identifikazioa» deitu ohi duena. Aldarrikapen erresuminduaren nahiz mendekuzko erasoaren azpian, eredutzat hartzen den luxu-subjektibotasunari luzatutako deia dago egiaz: eskatzen da baloratua izatea, onartua, partaidea, hau da, maitasun eskaria egiten zaio erasotzaileari.

«Lula gertaerak» biktimaren ereduak desegin du. Beste nonbaitetik mintzo den gorputza da, hau da, subjektibotasunean sentipen modura aurkezten den munduaren errealitate bizia materia-indar gisa hautematen den lekutik mintzo dena. Beste toki horretan sorturiko hizketak berarekin dakartza materia-forma gisara hartutako munduaren egungo konfigurazioaz eztabaidatzeko eskaera eta askatasuna. Ezagutza mota hori ez da ez eskolan ez eta unibertsitatekerik hoberenean ikasten, baizik eta bestearen aurrean egiaz ikusgai jarrita, bien arteko indar-eremuak gorputz dardarakoia iragin baitio eta subjektibotasuna astintzen, subjektibotasuna behartuz existentziaren kartografia berriak sortzera, esaterako, herrialde baterako proiektu politiko bat sortzera. Horrela bada, Lula mugitu egiten da munduaren ezagutza bere formetara murrizten duen kokapenetik, mugitzen den bezalaxe, aldi berean, desioaren politikatik, zeinak naturalizatzen dituen indarrean dagoen ereduak eta eredu horren baitako balio sozialaren eta jakintzen hierarkia. Bere hizketa moldean ez dago jada kexu erresumindurik, ez eta mendekuzko erasorik: luxu-subjektibotasunak zeharo galtzen du erreferentzia-ahalmena. Hortik dator Lularen presentzia lasaitasuna (aurkariak nahi izan zutenaren kontra, lasaitasun hori ez da marketineko jarrera bat, elitea baretzeko erabiltzen den «bake eta maitasunaren» irudi light bat)³. Presentzia dohain hori izan da apurka-apurka hain atxikimendu handia sortarazi duen elementua. Izan ere, lasaitasun horrek islatzen duen desioaren politikaren lekualdaketak lortu du, duen gaitasunagatik, kutsatzea

brasildarren subjektibotasuna, oro har, eta herrialdeko populazioaren %90 osatzen duten zabor-subjektibotasunak, bereziki. Lekualdatze hori baimendu eta zabaldu egiten da, garaipenera iristeraino; beldurra, aitzitik, urtu egiten da, eta hizketa bizi bat hedatzen da eta adimen kolektibo bat abian jartzen da. [Nahiz eta hautagai aurkariak, porrotaren arriskuak etsita, erasokor azpimarratu duen zer garrantzia duen prestakuntza unibertsitarioak, eta saiatu den jakintza hori ez duen batengatik gobernatua izateko beldurra haizatzeko, argumentu horiek ez dute inor limurtzeko gaitasunik izan].

Prozesua, jakina, ez da Lularekin hasten, eta haren figura lekualdatze historiko horren genealogiako indar garrantzitsua bada ere, ez da aipatutako hauteskundeetan hasten den zerbait.⁴

Kontuan hartzen badugu gizarte guztiak nahiaren eta subjektibotasunaren politika jakinetan oinarritzen direla, antzeman dezakegu mundu batetik bestera iragatea atzerazinezko kontua izango dela, nahiz eta egon badauden, eta seguru egongo diren, aurrera eta atzerako urrats ugari. Une historiko esanguratsu baten aurrean gaude, eta ez bakarrik ezkerak irabazteak pozten gaituelako, baizik eta, batez ere, hautagaiak zabor-subjektibotasunaren ezaugarrietako batzuk bere dituelako: metalurgiako langilea, Sao Pauloko bazter auzoetan bizi den iparraldeko etorkina, tornulari mekanikoa zen garaian makinaren batek irentsitako behatza duena; eta, borobiltzeko, portugesez «desegokia» hitz egiten duen brasildarra.

Poz horren alderik begi-bistakoena baino ez da hori, inozoena ez esatearren, eta are arrikutsuena, itxaropenarekin nahas baitaiteke, eta itxaropenak, maitasun triste horrek, mesianismoak, populismoak eta desberdintasunik gabeko mundu fusionalaren idealak elikatzen ditu, hots, krudeltasunik gabeko mundua, erresistentziarik gabekoa, sormenik gabekoa, bizitzarik gabekoa. Benetan garrantzitsuena dena zera da: pozten garela, zeren eta seinaleak baitaude adierazten dutenak ezen

indargabetzen ari dela brasildarren inkontziente kolonial-esklabista-diktatorial-kapitalista, zeinak egin dituen zabor-subjektibotasunaren mendeko, patu transzendentalaren biktima eta, ondorioz, hierarkiaren gaitibu.

Biktimaren irudia desagiteak eremu nazionala gairatzen duen behar bati erantzuten dio eta horregatik jarri da mundua Brasili begira. Ezkeraren betiko bizioa izan den biktimaren irudia irudikatzeak esan nahi du subjektibotasuna murriztea mundua materia-forma gisa ezagutzera, bizitzaren berezkoa den krudeltasun positiboari beldur izan eta, ondorioz, ukatzea, biolentziaren arrazoia hurkoari egozte eta haren kontra biolentzia erreaktibo gauzatzea. Bizio horrek bizitza-mugimenduaren krudeltasuna giza gaiztakeria bihurtzen du eta bizitzari sorkuntza eta erresistentzia indarrak kentzen dizkio.

Bizio kaltegarri hori sendatzeko Lula gertaerak proposatzen duen formula zera da: gorputz dardarakoia ateka irekitzea, subjektibotasunak bestea antzeman dezan berea ez den mundu bateko indar-eremu gisa, jakinda indar-eremu horrek subjektibotasunari eragin diezaiokeela eta horren aurrean agertzea arriskutsua izan daitekeela. Formula horren arabera, beraz, kontua da krudeltasunari aurre egitea, bai sorkuntza indarra askatuz gorputzaren disoziazioetik eta kapitalak egiten duen disoziazio horren harripaketatik, bai erresistentzia indarra libratuz berari buruz matrize dialektikoak egiten duen interpretaziotik eta bere burua gaiztakeria bilakatzetik. Bilduta daude desioaren politika baterako baldintzak, non erresistentziak eta sorkuntzak elkarrekin topo egingo duten munduko indarrei irekitzen zaien gorputz batean. Hori ez ote da, hain justu, brasildarrek, diktadura militarren garaietatik, demokrazia izendatu zuten «irekitze» hain desiratua?

Kontuan hartuz ezen biktimaren presentziak kultur praktikan ere traba egiten duela, esplizituki politikara lerratutakoetan batez ere, galdera batzuk egin behar dizkiogu gure buruari: figura hori modu berean desagiten

ari ote da eszena honetan? Arte sorkuntzak erresistentziarekiko bere interfazeetan nola egin diezaioke ihes biktima xede erotiko bihurtzeari? Are eta gehiago, arte sorkuntzak nola har dezake parte aktiboki pertsonaia kaltegarri hori giza gorputzetik egotzen? Eta zentzu zabalago batean, nola elkartzten dira sorkuntza eta erresistentzia gaur egungo arte praktiketan, baldin eta gure burua kokatzen badugu politika eta artea elkarrekin nahasten diren eta, beren arteko mugak erabat lausotuz, elkarri eragiten dioten eremu horretan?

Sorkuntzaren politikak: arte praktikak gaur egun

Baldin eta aintzat hartzen badugu ezen artea egitea sentipenak eguneratzea dela, sentipenak ikusgarri eta esangarri egitea, zentzuaren kartografiak egitea, eta sentitzea dela gorputzean bizi antzematea munduko bestetasunarekiko indarrak, zeintzuk bidea egitea eskatzen ari diren eta gaur egungo bizitzeko erak porrotera daramaten, onartu beharko dugu ezen indar horiek eguneratzea «sentipenak sozializatzea»⁵ dela, kolektibo bati jakinaraztea zer indar-egituraketa berri eragiten dioten eta indar-eragiketa berri horiek zer egituraketa berritara bultzatzen duten.

Esaten dugunean asmamen indarra, mobilizatu ez ezik, bizkortu eta areagotu egin dela gizarte eremu osoan, esaten ari gara ezen sorkuntza jadanik ez dagoela artearen mugetan bakartuta, giza jardueraren berriazko eremu bat balitz bezala. Egoera horrek arazo berriak sortzen eta estrategia berriak eskatzen dizkio arteari. Praktika artistikoak zer estrategiez baliatzen dira gaur egun, beren funtzio kritikoa betetzeko. Nola elkarlotzen dituzte sorkuntzaren eta erresistentziaren ahalmenak, atxikimendu estetiko eta politikoa?

Besterik gabe iraun ezker «artearen» ghettoan, aurreko erregimenak sorkuntza indarra giltzapetzen zuen eremu berezitu

horretan, gerta liteke artea erresistentzia indarretik bereizita mantentzea eta, hortaz, artea mugatzea balio-iturri izatera, kapitalaren (bere iruzurgilearen) mesederako. Gerta liteke artista soil-soilik izatea *prêt-à-porter* identitateez osatutako droga gogorren hornitzailea, nahiz eta *glamour* tantez bustitako sentipen kartografiak erantsi, eta garaian garaiko *dealer* azkarrek identitate horiek saltzea sentipenen eta norberaren siluetaren abstinentzia sindromea duten subjektibotasunez puztutako merkaturan. Mugara eramanda, portaera horrek zinismora eramaten ditu artista batzuk, *glamour* lekuetan agertzeko nahiarri erantzuten baitio haien sorkuntzak, eta bere burua eskaintzen baitute, atsegin handiz, iruzurgileak esplotatu ditzan.

Alabaina, kontua ez da behin eta berriro errepikatzea artea eta bizitza berriro elkarlotu behar ditugula, auzi horri modernitateari ematen ziztaion zentzuan, zeren eta, arteak eta bizitzak bereizita jarraitzen badute, hori ez da horrela gertatzen sorkuntza gizarte-bizitza orokorretik bereizita eta artearen ghettoan bakartuta dagoelako: egoera hori konpondu zuen kapitalismoak, arteak baino lehenago eta eraginkorrago. Bereizketarik baldin badago, eta begien bistakoa da badagoela, zinez esan behar dugu bereizketa hori lekuz aldatu dela eta, aldi berean, sotilagoa eta gaiztoagoa egin dela. Konplexutasun handiko eragiketa da, sorkuntza prozesuko hainbat etapetan eragin dezakeena, eta ez bakarrik amaieran. Amaieran duen eragina nabarmenagoa da besterik gabe, zeren bereizketa une horretan egiten da ageriko, produktua gauza bihurtzen duenez, bi modu hauetan: edo bihurtzen du «arte objektu», sorkuntzaren xede izan zen bizi-prozesutik bereizita, edo *glamour* gainbalioaren iturri gisa erabiltzen du, bihur dadin enpresen eta are udalerrien logotipo, Bilboko kasuan bezala. Kasu horretan, *glamour* logotipoaren sedukzio ahalmena gehitzen du eta, beraz, baita kontsumoaren identifikazioa eta nahia indartzeko boterea ere, zeinak arrakasta komertziala izateko aukera ematen dion.

Gaur egun, praktika artistiko batzuek bereziki eraginkor erantzun diote goian adierazitako arazoari. Horien estrategia da sotiltasunez eta zehaztasunez sartzea gizarte egituraren narriadura puntuetan, non atzematen den presio bat, sarbidea eskatzen ari diren indarren egituraketa berriek eraginda. Jokatzeko modu horretan, bestearen aurrean agerian jartzeko eta agerian jartze horrek dakartzan arriskuak onartzeko nahia gailentzen da, eta ez harreman politikoki zuzenaren bermea, zeinak bestea irudikapenera mugatzen duen eta subjektibotasuna afektibitatearen eraginetik babesten duen. «Obra» bat egitea da bizitzara ekartzea indar horiek eta berek sortzen duten tentsioa, eta horretarako behar da sorkuntza indarra lotzea mundu zati bati, zeina materia indar gisa atzematen duten artistaren gorputz dardarakoia eta, aldi berean, erresistentzia indarraren aktibazioak. «Beste batera-egote baten dispositibo espazial-tenporalak»⁶ asmatzen dira: praktika artistikora eramandako jarrera horren presentzia biziak kutsatze eta hedatze indarra du, zeharka edo zuzenean txertatzen den ingurunean. Mobilizaturik dagoenez bai ingurune horretan bai edonon, sorkuntza indarrak, baimena ematen zaiolarik materia-indar gisa munduari birlotzeko eta erresistentzia indarrarekin elkartuta jokatzeko, beste aukera bat du destino maltzurretik libratzeko, zeinak kentzen dion sentipenetan abian diren mutazioak eguneratzen dituzten kartografia bereziak asmatzeko ahalmena. Obra, beraz, gertaera hori bera da.

Zer beste estrategia ari dira hemen azaldu ditugun arazoei aurre egiten? Zer beste arazo ari dira sortzen arte praktiken eremuan, erresistentziaren eta sorkuntzaren arteko bereizketa horrek eraginda? Eta gizarte praktiken alorrean, nola ari dira berrindartzen eta gainjartzen atxikimendu politikoa eta atxikimendu estetikoa, funtsezko indarrak direnak edozein giza jardueraren bizi-osasunarentzat? Eta galdera horiei erantzun ildoak aurkitzea ez da banaka egin daitekeen lana. Lan horrek arrakasta izateko, ezin konta ahala esperimendazio metatu behar dira bizitza kolektiboaren sarean.

Oharrak eta aipamenak

- 1 Testu hau, *São Paulo S.A. Situação #1 Copan* ekitaldian egin zuen hitzaldi batetik atera da (2002ko azaroak 23-27).
- 2 «Munduko kapitalismo integratua». Izen hori **Felix Guattari**k proposatu zuen «globalizazioa» izenaren ordean 1970eko hamarraldian, kapitalismo garaikidea izendatzeko. Globalizazioa izen generikoa da eta, gainera, zentzu ekonomikoa eta, batez ere, kapitalista eta neoliberalak ematen dio mundu mailako fenomeno horri. **Guattari**ren arabera, *kapitalismoa mundu mailakoa eta integratua da planeta osoan, zeren gaur egun sinbiosi oso batean baitago ihes egiten zietela ziruditen herrialdeekin (sobietar blokeko herrialdeak, Txina) eta bere joera baita bere kontroletik kanpo ez uztea inolako giza jarduerarik, inolako ekoizpen sektorerik (Guattari, F., «O Capitalismo Mundial Integrado e a Revolução Molecular»). Frantsesez egindako hitzaldia CINEL taldean 1980an, eta geroago *Revolução Molecular. Pulsações políticas do desejo* (São Paulo: Brasiliense, 1981) liburuan argitaratua.*
- 3 Hauteskunde kanpainan, **Lula** lasai agertzen zen jendearen aurrean, bere aurkariak eta prentsa gehiena ez bezala. Horiek, gutxietsi nahian, «Lulinha paz e amor» izena eman zioten.
- 4 Gogoratu **Lula** Sao Pauloko gobernari izateko aurkeztu zela lehen aldiz hauteskunde batzuetara, 1982an, diktadura militarrek ia bi hamarraldiko bizitza zuenean (1964-1985). Lehen saio horretan ez zuten hautatu. Bigarren saioan, 1986an, diputatu federal izateko aurkeztu zen eta berak jaso zituen botoen gehienak. Geroago, Errepublikako lehendakaritzarako hauteskundeetara aurkeztu zen lau alditan: 1989an, diktaduraren ondoren lehendakaritzarako lehen hauteskunde zuzenak egin zirenean; eta 1994, 1998 eta 2002an, botoen gehiengo batez hautatua izan zenean.
- 5 Cfr. Gabriel Tarde via Maurizio Lazzarato
- 6 «Estética y política. Un vínculo para replantear». **Jacques Rancière**ren mintegia, Bartzelonako Arte Garaikideko Museoak (MACBA) antolatua, Bartzelonan 2002ko maiatzaren 13tik 17ra.